

EUSKAL HERRIKO MITOLOGIA

Euskal Herri mailan pertsonaia mitologikoak ugariak dira, baita sinesmen eta uste desberdinak ere. Hauek Euskal Herriko mitologia osatzen dute eta antzinan sortu ziren, Kristo aurretik. Baina, noizbait aurkitu al da pertsonaia mitologikoak existitzen ziren frogarik? Ahoz kontatu izan diren ipuin eta istorioetatik daukagu sinesmen eta pertsonaia hauen berri. Baina zertarako sortu ziren pertsonaia hauek?

Euskal mitologiaren zereginak

Esan bezala, euskal mitologia antzinatik dator eta gizakiek sortutako pertsonaiak dira, erantzunik ez zeukaten arazoei azalpena emateko sortuak, naturarekin zerikusia duten usteak eta sinesmenak, mundu eta errealitate magiko bat. Anbotoko Mari da honen adibide bat, eguraldia eta klima kontrolatzen zituen, besteak beste. Baina gaur egun nork sinesten du pertsonaia mitologikoengan? Jarraitzen dugu pertsonaia hauen istorioak kontatzen? Zergatik? Zertarako?

Euskal mitologiaren funtzioak

Gaur egun ere ipuin hauek kontatzen eta irakurtzen zaizkie umeei. Hainbat liburutan agertzen da, adibidez, Tarttalo, animaliak jaten zituen begi-bakarreko erraldoia. Basajaunak eta Lamiak ere ezagunak dira. Istorio hauek kontatzen jarraitzen dugun heinean, mitologiak aurrera jarraituko du, gure arbasoen sinesmenak ezagutzeko.

Honetaz aparte, pertsonaia hauen irudikapenak kalean ikusten dira, inauterietan eta herriko jaietan, besteak beste. Buru handiak, adibidez, herri tradizioen parte garrantzitsua dira, umeen eta helduen poztasuna zabaltzeko, nahiz eta ume askok beldurra ere sentitu. Jaietako mozerro asko ere aintzinako tradizioetan oinarrituta daude, beheko argazkian ikusten den bezala. Beraz, mitologiak garrantzia handia izan zuen antzina, baina gaur egun ere gure bizitzaren parte izaten jarraitzen du.

